# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 5244

*AGINDUA, 2017ko urriaren 11koa; horren bidez, arautu egiten dira 2015-2020. aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen Leader zonako landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak.*

Nekazaritza-politika berritu egin da, Nekazaritza Politika Bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren bidez. Landa-garapenaren eremuan –NPBren bigarren euskarria–, erreforma izan da oinarrizko lehentasun-kopuru jakin batean zentratzea, eta honen bitartez egin da: Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez landa-garapenari laguntzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua –Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen du–. Erregelamendu honetan aplikatzekoak diren xedapenak Batzordearen 2014ko uztailaren 17ko 808/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren bidez ezarri dira. Horrela, programazio-aldirako helburuak lortzeko –2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra–, aipatutako Erregelamenduan zehazten da nahitaezkoa dela Leader ikuspegia aplikatzea, izan ere, landa-garapena sustatzeko duen eraginkortasuna frogatu da urteetan zehar, osoki aintzat hartuz landa-garapen endogenoko sektore anitzeko beharrizanak, goranzko planteamendu baten bidez.

Aurreko etapan bezala, martxan jarri beharreko neurriak erregelamenduzko aginduaren bidez planifikatu behar dira. Horretarako, kudeaketa-agintaritzak, euskal erakunde publikoekin lankidetzan, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programa egin du; bertan, plangintza hori jasotzen da eta Batzordearen Betearazpen Erabakiaren bidez (C (2015) 3479 Erabakia, azkena, 2015-05-26koa) onetsi da. Landa Garapenaren Programa (LGP) hau 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Esparru Nazionalak ezarritakoa kontuan hartuta egin da; 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Esparru Nazionala Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egin zuen, eta 2015eko otsailaren 16ko Batzordeak onetsi. LGPan sartutako neurrien arau esparrua 43/2017 Dekretuan jasotakoa da (43/2017 Dekretua, 2017ko otsailaren 14koa, zeinaren bidez ezartzen baita 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia), zehazkiago, arau horren eranskinean jasotzen da 19. neurria: Leader tokiko garapenerako laguntza. 19.2.– Partaidetzan oinarritutako tokiko garapenaren estrategien bidez operazioak ezartzea. Horren deialdia arau honen bidez egiten da.

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduak ezartzen du, 32. artikuluan, toki-garapen parte-hartzailea LGENFek babestuko duela, Leader tokiko garapen gisa izendatuko dela, eta EGEFen, EGIFen edo FEMPen laguntza ere izan ahalko duela. Azpieskualdeko gune jakinetan zentratuko da toki-garapen parte-hartzaile hori, tokiko ekintza taldeek gobernatuko dute, ongi integratutako toki-garapeneko estrategien eta sektore anitzeko estrategien eta guneetan oinarritutakoen bidez gauzatuko da; tokiko beharrizanak eta potentziala aintzat hartuz diseinatuko da, eta alderdi berritzaileak barne hartuko ditu tokiko testuinguruan, baita sareak, eta, hala behar denean, lankidetza ezarri ere. Halaber, azalpen-zatiaren 32. atalaren arabera, toki-garapen parte-hartzailea (aurrerantzean, TGP) egin behar da helburu tematiko bakar baten testuinguruan: gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka edo enplegua eta lan-mugi-

kortasuna sustatzea, hargatik eragotzi gabe TGPren parte gisa finantzatutako ekintzek lagundu ahal izatea gainerako helburu tematiko guztietan.

Halaber, toki-garapen parte-hartzailerako estrategiei buruzkoa da aipatu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EE) Erregelamenduaren 33. artikulua, eta bertan adierazten da helburuok zer elementu izan behar duten gutxienez eta Estatu kideek definituko dituztela estrategia horiek hautatzeko irizpideak. Kudeaketa-agintaritza arduradunak horretarako sortutako batzorde batek hautatuko ditu estrategiak, eta agintaritza horiek berek onartuko dituzte. Tokiko ekintza taldeek diseinatu eta praktikan ezarriko dituzte toki-garapen parte-hartzailerako estrategiak; egin beharreko lanak aipatu erregelamenduaren 34. artikuluan ezartzen dira. Gure autonomia-erkidegoan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko abenduaren 30eko Aginduaren bidez egin zen taldearen hautaketa (agindu horren bidez iragartzen da toki-garapen parte-hartzailerako estrategiak onartzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan horien kudeaketaren ardura duten Tokiko Ekintza Taldeak hautatzeko deialdi publikoa, 2015-2020 Landa Garapenaren Programaren barruan; 2016ko azaroaren 4ko EHAA, 1. zk.). Hautaketa-prozesua Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2016ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez amaitu zen (horren bidez, Mendinet Landa Garapena sustatzeko Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-ekintzako talde izendatu da, eta elkarte horrek proposatutako tokiko garapen parte-hartzailerako estrategia onartu da). 2016ko urriaren 28an sinatu zen lankidetza-hitzarmena talde horrekin.

Esandakoagatik, eta kontuan hartuta arloaren gaineko araudia guztia, apirilaren 11ko 2/2017 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, eta Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

1.– Onestea, 2017. urterako, Toki Garapen Parte Hartzaileko Estrategian (LEADER ikuspuntua) zehaztutako helburuak betetzera bideratutako diru-laguntzen oinarriak. Deialdia Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2016ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapeneko Programan zehaztutakoaren arabera (plana Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko C (2015) 3479 Erabakiaren bidez onartu zen). Horiek I. eranskin gisa gehitu dira.

2.– Onestea III. eranskina (eskabidea), IV.a (enpresa-plana), V.a (besteren konturako langileen kontratazio-memoria), VI.a (LEADER herrietako zerbitzu-publikoen azpiegituren eta berritzearen memoria) eta VII.a (etxebizitza-memoria).

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 11.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

# I. ERANSKINA

## I. KAPITULUA

## ZATI OROKORRA

1. oinarria.– Xedea eta izaera.

1.– Agindu honen zedea da Toki Garapen Parte Hartzaileko Estrategian (LEADER ikuspuntua) zehaztutako helburuak betetzera bideratutako diru-laguntzen deialdia egitea. Deialdia Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2016ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapeneko Programan zehaztutakoaren arabera (plana Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko C (2015) 3479 Erabakiaren bidez onartu zen). Horiek I. eranskin gisa gehitu dira.

2.– Deialdi honen xede dira jarraian zehazten diren lerro hauek:

a) Nekazaritzaz besteko jardueretarako enpresak sortzera bideratutako laguntzak (startup), II. kapituluan zehaztutakoak.

b) Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko laguntzak, III. kapituluan zehaztutakoak.

c) Besteren kontura kontratatzeko laguntzak, IV. kapituluan zehaztutakoak.

d) Udalerrietako oinarrizko azpiegitura eta zerbitzuak egin eta berritzeko laguntzak, V. kapituluan zehaztutakoak.

e) Etxebizitzarako laguntzak, VI. kapituluan zehaztutakoak.

3.– Agindu honen esparruan ematen diren laguntzak ez-itzulgarriak izango dira.

2. oinarria.– Eremu geografikoa.

Aplikaziorako eremu geografikoa Leader eremurako hautatutako udalerri guztiek osatuko dute. II. eranskinean daude jasota, landa-izaeraren arabera hiru mailatan banaturik (G1, G2 eta G3).

3. oinarria.– Baliabide ekonomikoak.

1.– II., III., IV., V., VI. eta VII. kapituluetako laguntzak LGENF Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko dira, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoren Aurrekontu Orokorren kargura egindako aurrekontu-kredituak 1.413.345 eurokoak izango dira. Horietatik, 599.599,00 euro 2017. urteko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 813.746,00 euro 2018. urteko konpromiso-kredituei. Honela banatuko dira:

- 128.000 euro II. kapituluko laguntzetarako.
- 550.000 euro III. kapituluko laguntzetarako.
- 22.000 euro IV. kapituluko laguntzetarako.
- 650.000 euro V. kapituluko laguntzetarako.
- 63.345 euro VI. kapituluko laguntzetarako.

3.– Toki-ekintzako talde Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari dagokionez, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat, agindu honen bidez deitutako laguntzetarako kreditu zehatza 5.653.380 eurokoa izango da, eta EAEko erakunde ordaintzaileak egingo ditu ordainketak. Kopuru horretatik 2.398.396,00 euro 2017. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.254.984,00 euro, 2018rako konpromiso-kredituari. Honela banatuko dira:

- 512.000 euro II. kapituluko laguntzetarako.
- 2.200.000 euro III. kapituluko laguntzetarako.
- 88.000 euro IV. kapituluko laguntzetarako.
- 2.600.000 euro V. kapituluko laguntzetarako.
- 253.380 euro VI. kapituluko laguntzetarako.

4.– Aurrekontu-ekitaldi honetan ematen den laguntza, guztira, oinarri honetako 2. eta 3. zenbakietan hura finantzatzeko xedatzen den guztizko zenbatekoaren parekoa izango da gehienez.

5.– 2017ko ekitaldiko ordainketa-kredituei egotziko zaizkie laguntzak, edo, hainbat urtetako proiektuei dagokienez, zatikako ordainketei aurre egiteko konpromiso-kredituei; betiere, ekitaldian aurrekontua ixteko aplikatu beharreko araudia betez.

6.– Emango diren laguntzen zenbateko guztia ezingo da izan baliabide horiek baino handiagoa, ez eta baliabideok eguneratzean ateratzen den zenbatekoa baino handiagoa ere, indarrean dagoen legedia betez aurrekontu-aldaketak onartzen diren kasuetan. Eguneratzea egin eta baliabideak handitzen badira, laguntzak emateko prozedura ebatzi aurretik gauzatu beharko da igoera hori, eta horren berri eman beharko da gainera, landa-garapeneko gaietan eskumena daukan sailburuordearen ebazpen bidez.

4. oinarria.– Onuradun-izaera lortzeko betekizun orokorrak.

1.– Onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak eta edozein unitate ekonomiko eta ondare bereizi, nortasun juridikorik izan gabe ere, aurreikusitako proiektu eta jarduerak egin baditzakete. Bertan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan eta agindua garatzeko eta aplikatzeko arauetan ezarritako betekizun eta baldintzak.

2.– Aurreko lerrokadan zehaztutako pertsonek otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-legedia ezartzen duena) 5. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, hala nola Diru-laguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasota daudenak eta laguntza-lerro bakoitzerako berariaz ezarrita daudenak eta, zehazki, hauek:

a) Diruz lagundu daitezkeen jarduketak hasi gabe egotea eskaera aurkezten den unean edo epe horren aurretik, 5. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz. Inbertsioen kasuan, hori hala dela egiaztatuko da lekuan bertan egindako ikuskaritza baten bidez, eta egoera horri buruzko ziurtagiri bat emanez.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

c) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren menpeko erakundeek emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan, itzultze- edo zehapen-prozeduretako kantitate zehatzen ordainketari dagokionez egunean egotea. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak atzeratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak

estaliko dituen bermea eratu bada.

d) Enpresak krisialdian ez egotea, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

e) Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. zenbakietan aurreikusitako debekuen kausetan nahastuta ez egotea. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura eten ez izana, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahalko da, dagokion erregistroan.

f) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen epai irmorik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

g) Konkurtso-deklarazioa eskatu ez izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez izana, konkurtsoan deklaratuta ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren pean ez egotea edo desgaitua ez izatea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

h) Administrazioarekin hitzartutako edozein kontratu ezeztatzea eragin ez izana.

i) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, horietan ezarritako baldintzetan.

j) Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

k) Ezin izango dute onuradun izan nortasun juridikorik gabeko taldeek, baldin eta kideren batek aurreko debekuren bat badu.

l) Diru-laguntzak jasotzeko galarazpenek honako enpresa hauei ere eragingo diete: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste zirkunstantzia batzuk direla-eta, pentsa badaiteke beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla –eraldaketa, bategitea edo ondorengotzaren ondorioz–, eta horietan debeku horien arrazoiak gertatu badira.

m) Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez.

n) Berreskuratzeko agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

3.– Aurreko lerrokadako b), c), f), g), i), k) eta l) letretan jasotako debekuak modu automatikoan egiaztatuko dira, eta bere horretan mantenduko dira kasu bakoitzean zehazten diren inguruabarrak mantentzen diren bitartean.

4.– Era berean, modu automatikoan egiaztatuko da f) letran jasotako debekua. Debekuaren irismena epai edo ebazpen irmoak zehazten duena izango da. Bestela, irismena araudiz zehaztutako prozeduraren bidez ezarriko da, eta ezingo da bost urtetik gorakoa izan debekua ez bada epai irmo

baten ondoriozkoa.

5.– h) letran zehaztutako debekua aintzat hartzea eta haren irismena ebazteko ekainaren 16ko 2/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bateginaren 21. artikuluan ezarritakoarekin bat egingo da, 20.c) artikuluarekin lotuta.

5. oinarria.– Eskabideak, dokumentazioa eta horiek aurkezteko epea.

1.– Eskatzaileek jarraian zehazten den dokumentazioaren eta laguntza-lerro bakoitzerako dokumentazio espezifikoaren bi kopia aurkeztu beharko dituzte, «MENDINET Landa-garapenaren aurrerapenerako elkartea» toki-ekintzako taldean (Aurkaute kalea z/g, 01192 Vitoria-Gasteiz, Araba):

a) Agindu honen III. eranskinean ageri den eskabide-orria. Orri hori webgune honetan ere eskuratu ahal izango da: www.nasdap.ejgv.euskadi.net. Eskabide-orria modu informatikoan bete eta grabatu ostean, paperean bidali beharko da, sinatuta.

b) Eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondoko jardueretan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin bat etorriz.

c) Hirugarrenaren alta eta NANaren fotokopia, pertsona fisikoa bada. Pertsona juridikoa izanez gero, erakundearen IFK, ahalordetze-eskritura eta legezko ordezkariaren NAN, baita erakundearen eratze-eskritura eta estatutuak ere, dagokion erregistroan zigilatuta.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. lerrokadan xedatutakoarekin bat eginez, diru-laguntzaren eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango du Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak zuzenean eskura ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duten dokumentuak, NAN/IFK nortasuna, lan-kontratuak, Gizarte Segurantzako altaren egiaztagiria, TC2a, lan-bizitzaren txostena eta beste edozein administrazio publikok egindako dokumentu guztiak. Hala ere, eskatzaileak baimen hori berariaz uka dezake, baina, kasu horretan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

3.– Pertsona batek hainbat eskabide aurkezten baditu, hainbat laguntza-lerrotarako, eskabide guztientzako komuna den dokumentazioaren kopia bakarra aurkeztu ahal izango du.

4.– Eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkezten badute eskatutako dokumentazioa eta aldaketarik ez dela egin berariaz adierazten bada, ez dute aurkeztu beharko dokumentazio hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluaren 3. zenbakiarekin bat etorriz. Adierazi beharko da, hala ere, noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu diren agiri horiek. Eskaera aurkeztuz gero, baimena emango da organo kudeatzaileak dokumentazio hori eskuratzeko. Horrek ez du esan nahi baimena berariaz ukatu ezin denik. Hori egitekotan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5.– Eskabideak akatsen edo zehaztasun ezaren bat badu, interesdunari aginduko zaio hamar egun balioduneko epean hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko dio horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela; hirugarren baten alta ematen ez bada, ebazpena eman ondoren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

6.– Edonola ere, toki-ekintzako taldeak beharrezko iritzitako bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko. Eskabide aurkeztean interesdunak baimena ematen dio toki-ekintzako taldeak informazio-errekerimendua egin ahal izan dezan.

7.– Eskabideak aurkezteko hamabost egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Alabaina, onartu egingo dira epe horren aurretik aurkeztutako eskabideak, deialdiaren ekitaldiaren barruan egin badira. Eskabide horiek berriz aurkeztu beharko dira dokumentazio orokorra eta, beharrezkoa denean, espezifikoa erantsita, agindua indarrean jarri eta hamabost eguneko epean.

6. oinarria.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 10. artikulua betez, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza izango da programaren kudeaketa efiziente, eraginkor eta egokiaren arduraduna. Alabaina, kudeaketa horretan parte hartuko du «MENDINET Landa-garapenaren aurrerapenerako elkarteak». Horrek, toki-ekintzako talde bezala, eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aztertuko ditu, ikusteko beharrezko informazioa jasotzen duten eta lortu nahi dituzten laguntzen nolakotasunarekin bat egiten duten. Alderdi horiek egiaztatuta, diru-laguntzetarako batzorde bat eratuko da, zeinetan ordezkaritza izango baitute toki-ekintzako taldeak eta landaren eta itsasertzaren garapenean eskumena duen Zuzendaritzak; batzorde horrek zehaztuko du proiektuak diruz lagun daitezkeen. Balorazio hori egiteko, toki-ekintzako taldeak onartutako estrategia kontuan hartuko da. Erabaki hori akatsak zuzentzeko epea amaitu eta bi hilabeteko epean egingo da, eta hura amaitzen denean aldekoa dela joko da.

2.– Aldeko irizpena eman ondoren, toki-ekintzako taldeak espedienteak baloratuko ditu eta bakoitzarentzako txosten tekniko-ekonomiko bat egingo du.

3.– Agindu honetan araututako laguntza-lerro bakoitza lehiaketa bidez esleituko da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1 artikuluan ezartzen denez.

4.– Eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektuak konparatuko dira, eta laguntza-lerro bakoitzerako zehaztu diren irizpideak eta balorazioa aplikatuko zaizkie.

5.– Ondoren, 1. oinarrian jasotako laguntza-lerro bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da, proiektuak puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta. Ondoren, esleitu beharreko laguntzen zenbatekoa zehaztuko da, adierazitako ordenari jarraituz, funtsak guztiz agortu arte. Funtsak murritzak direla kontuan izanik, lerro bakoitzeko azken laguntzari dagokionez, proposamena diru-kopuru erabilgarria baino handiagoa bada, ez da laguntzarik emango, eta hurrengo lerroko funtsak handitu dira kantitate horrekin, guztiz agortu arte.

6.– Edonola ere, aurreko lerrokadako araua aplikatzean lortzen den zenbatekoa laguntza-eskaeran zehaztutakoa baino handiagoa bada, eskaeran zehaztutako zenbatekoa emango da.

7.– Bost laguntza-modalitateetako bati dagokion kopurua agortu ezean, soberakina 1. oinarrian zehazten den moduan banatu ahal izango da. Era berean, laguntzaren lehen esleipena egin eta hiru hilabeteko epean emandako zenbatekoak gutxitzen badira edo diru-laguntza jasotzeko eskabideari uko egiten bazaio, zenbateko horiek honako hauei esleituko zaizkie: hurrenkera zorrotz gordeta, dagokion laguntza-lerroan kreditu faltagatik laguntzarik jaso ezin izan duten eskabideei, betiere Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan ezarritako mugen barruan.

8.– Proiektu bik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, «Landatartasun-maila» handiena duena lehenetsiko da, eta, berdinketak badirau, «Eskualdeko Landa Garapenerako Programara egokitzea» irizpidean puntuazio handiena lortu duena.

9.– Toki-ekintzako taldeak ebazpen-proposamena egingo dio landaren eta itsasertzaren garapeneko eta europar politiketako eskumena duen zuzendaritzari, eta horrek eduki hau izango du gutxienez:

● Deialdiaren betekizunak ez betetzeagatik ezestea proposatzen diren eskaeren zerrenda, eta, horrekin batera, ezesteko arrazoia.

● Diruz laguntzea proposatu den proiektuen zerrenda. Bertan adieraziko dira proiektu bakoitzaren puntuazioa, eskatu duen pertsonaren nortasuna, eskatutako zenbatekoa, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa eta aplikatu beharreko ehunekoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

● Atzera egin duten eskaeren ebazpena.

10.– Tokik-ekintzako taldeak egingo du diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena. Horretarako, behar adina ikuskapen egin ahal izango du egiaztatzeko behar bezala gauzatzen direla diruz lagundutako proiektuak; beraz, eskatzen zaien agiri eta informazio oro eman beharko dute onuradunek.

7. oinarria.– Ebazpena.

1.– Otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat, landaren eta itsasertzaren garapeneko eskumenak dituen zuzendariak, toki-ekintzako taldeak egindako proposamena ikusita, ebazpen bakar bat emango du. Ebazpen hori arrazoitua egon beharko da ebazpen-proposamenarekin bat egiten ez duenean, azken hori ez baita loteslea.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Onartutako eskabideei dagokienez:

○ Pertsona onuradunen izenak.

○ Diruz lagundutako proiektua.

○ Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa.

○ Puntuazioa.

○ Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, LGENF funtsaren kargura finantzatutako zatia adieraziz. Zati hori Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratzen duen urriaren 3ko 194/2006 Dekretuan xedatzen denaren arabera eman eta ordainduko dela adierazi beharko da.

○ Jarduerak zein epetan gauzatu behar diren.

○ Onuradunari erakundearen edo elkartearen eraketa egiaztatuko duen dokumentazioa aurkezteko betebeharra ezartzen dion klausula bat.

○ Proiektua gauzatzeko behar diren lizentziak edo baimenak.

b) Onartu ez diren eskabideei dagokienez:

○ Pertsona eskatzaileen izena.

○ Eskabidea ez onartzeko arrazoiak.

3.– Agindu hau indarrean sartu eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek ezetsitzat jo

beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

4.– Lehiarik gabeko konkurrentziako prozeduraren ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluaren b) letrako 1. lerrokadan xedatutakoaren arabera, EHAAn argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da. Hala eta guztiz ere, interesdun bakoitzari ebazpen osoa helaraziko zaio. Edonola ere, lehenik egiten den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Laguntza eman edo ezesteko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio landaren eta itsasertzaren garapeneko eskumenak dituen Sailburuordetzari. Horretarako hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

8. oinarria.– Onuradunen betebehar orokorrak.

Onuradunek otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, hala nola Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak eta laguntza-lerro bakoitzari berariaz dagozkienak eta hauek:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean, onartu egiten dutela ulertuko da.

2.– Diru-laguntza erabiltzea eman zaion horretarako, eta emateko edo, bestela, likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzekin bat eginez.

3.– Ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaizteari dagokionez, gutxienez 5 urtez eutsi beharko zaie diru-laguntzaren helburu diren inbertsioei, diru-laguntzaren azken ordainketatik zenbatzen hasita, bai eta gainerako ondasunei dagokienez, ere; epe horretan, ezin izango dira besterendu, ezta amortizatu, ezta diruz laguntzen den helbururako ez den beste helburu baterako erabili. Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzeari dagokionez, jabariaren erabilgarritasun mugatzeko erregistro-idazpena dagokion jabetzaren erregistroan eta hipotekei buruzko legeriaren arabera egiteko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du onuradunak.

4.– Besteren konturako kontratazioei dagokienez, sortutako enplegua 3 urtez mantendu beharko da gutxienez, onuradunari legez laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen zaion unetik hasita. Gainera, inoiz lanik egin ez duten pertsonak edo lehendik zuten lana galdu dutenak kontratatu beharko dira.

5.– Honako hauek jakinaraztea toki-ekintzako taldeari, kudeaketaz arduratzen den zuzendaritzari bidal diezazkion:

a) Inbertsioa guztiz edo zati batean gauzatu izanaren jakinarazpena, eta behar den dokumentazio guztia haren esku uztea, inbertsioak eta gastuak egin dituztela egiaztatzeko.

b) Xede bererako edozein administraziori edo erakunde publiko eta pribaturi eskatutako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk. Horretarako, hamabost egun naturaleko epea izango dute, egoera horren berri izan den egunetik zenbatzen hasita, eta, edonola ere, jasotako funtsak erabili direla justifikatu aurretik.

c) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza objektibo zein subjektiboren aldaketa. Jakinarazpen hori aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean, eta, edozein kasutan, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen egin beharko da.

6.– 43/2017 Dekretuaren (otsailaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzekoa) 9. artikuluan ezarritako informazio- eta publizitate-betekizunak betetzea.

7.– Toki-ekintzako taldeari eta landaren eta itsasertzaren garapenaren alorrean eskumena duen Sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete.

8.– Merkataritza-legeriak eta kasu bakoitzean onuradun bakoitzari aplikatu ahal zaion sektoreko legeriak eskatutako terminoetan behar bezala ikuskatutako kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak eskura izatea, egiaztapen- eta kontrol-eskumenak egoki bete direla bermatzeko.

9.– Jasotako diru-laguntza zertan erabili den egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

10.– Hala badagokio, jasotako funtsak itzultzea.

11.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

9. oinarria.– Gauzatzeko gehieneko epeak.

1.– Proiektuak 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira.

2.– Laguntza emateko ebazpenean ezarritako epean, burutu beharko dira diruz lagundu daitezkeen jarduera. Epe horiek finantzaketa-kredituen izaerari egokituko zaizkio.

3.– Salbuespenez, landaren eta itsasertzaren garapeneko eta europar politiketako eskumena duen Zuzendaritzako titularrak, ebazpen bidez, bi urtera arteko luzapena eman ahal izango du. Horretarako, onuradunak eskaera eta justifikazioa aurkeztu beharko ditu idatziz. Idazkia, gehienez ere, inbertsioa edo gastua bukatuta egon behar duen eguna baino 30 egun natural lehenago aurkeztu behar da, laguntza emateko ebazpenak xedatutakoarekin bat etorriz.

10. oinarria.– Diru-laguntza jaso duten jardueren azpikontratazioa.

1.– Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuz gero, honako kasu honetan kontsideratzen da onuradunak azpikontratatu egin duela: diru-laguntzaren helburu den jardueraren exekuzio partziala edo osoa hirugarrenekin hitzartzen duenean (887/2006 Errege Dekretuz onartzen da Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua). Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak berak diruz lagundutako jarduera egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2.– Enplegua sortzeko kasuetan izan ezik, onuradunak diruz-lagundutako jardueraren % 100era arteko azpikontratazioa egin ahal izango du. Ezin izango da jarduerarik azpikontratatu, baldin eta diruz lagundutako jardueraren kostua gehitu eta jardueraren edukiari inongo balio erantsirik ematen ez badio. Hirugarrenekin azpikontratatutako jarduerak diru-laguntzaren % 20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak betekizun hauek konplitu beharko ditu:

a) Kontratua idazki bidez egitea.

a) Erakunde emaileak aldez aurretik baimena ematea kontratua egiteko.

Dirua lagundutako jarduerentzat jadanik beste administrazio publiko batek eman badu diru-laguntzarik, ulertu beharko da administrazio honek egiaztatu duela betekizun hauek konplitzen direla.

3.– Ezin izango da zatikatu kontratua, helburua haren zenbatekoa txikitzea bada, eta, bestalde, bete egin beharko dira aurreko paragrafoan exijitutako betekizunak.

4.– Kontratistek onuradunarekiko bakarrik dituzte obligazioak, eta onuradunak beretu egin beharko du diruz lagundutako jarduera exekutatzearen gaineko erantzukizun guztia.

5.– Aurreko paragrafoan jasotakoa betetzeko, onuradunei dagokie: diru-laguntza jasoko duen jarduera gauzatzeko beste inorekin ezer kontzertatuz gero, ezarritako mugak errespetatuko direla ziurtatzea, diruz laguntzeko modukoak diren gastuen zenbatekoari eta izaerari dagokienez; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 46. artikuluan aurreikusitako lankidetza-betebeharrari lotuak izango dira kontratistak, aipatu mugak betetzen direla egoki egiaztatu ahal dadin.

6.– Alabaina, onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

a) Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako galarazpenetako batean dauden edo horri lotuta dauden pertsonekin.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste diru-laguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu totalaren ehuneko jakin gisa definitzen badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunei lotuta dauden pertsonak edo erakundeak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2 artikuluan ezarritakoak izango direnak, honako egoera hauetakoren batean salbu:

i) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.

ii) Landaren eta itsasertzaren garapeneko eta Europako politiketako eskumena duen Zuzendaritzaren aldez aurretiko baimena lortu izana.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsonak edo erakundeak.

11. oinarria.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Diruz lagundutako jardueraren inbertsioak edo gastuak egin ostean, onuradunak horiek amaitu direla jakinaraziko dio toki-ekintzako taldeari.

2.– Zuzendaritzako teknikariak ikuskatu eta egiaztatuko dute, modu materialean zein dokumentuen bidez, hobekuntza edo jarduera egin egin direla eta gastua gauzatu egin dela. Egiaztatze materialaren bidez ziurtatuko da dena delako ondasun-objektua benetan badagoela, balioztaturiko proiektu edo memoriari egokitzen zaiola, haren erabilgarritasuna eta funtzionamendua, dokumentuetako justifikazioarekin bat datorrela, eta diru-laguntza jaso duten inbertsio edo gastuen arabera beharrezkoak diren beste egiaztapenak.

3.– Inbertsioa eta/edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da honako hauen bidez:

a) Egiten diren jarduketak justifikatzeko memoria bat, laguntzaren xede den proiektuaren gauzatzea azaltzen duena.

b) Fakturen eta ordainketak frogatzeko beste dokumentu batzuen aurkezpena; horiek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan ahalko dira, laguntzaren onuradun den pertsonaren izenarekin. Horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, non zehaztuko baita fakturak eta gainerako justifikazio-agiriak ez direla aurkeztu diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko. Aitzitik, agiri horiek aurkeztu baldin badira diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko, zehaztu beharko da programak zein diren eta, faktura edo justifikazio-dokumentu bakoitzari dagokionez, zein den jasotako diru-laguntzaren portzentajea.

c) Laguntza pertsonifikaturiko erakunde bat eratzearen baldintzapean badago, eraketa-akta, estatutuak eta dagokion erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

d) Laguntza emateko nahitaezko baimenak eta lizentziak aurkeztu behar badira eta laguntza eskatzeko unean horiek emanda ez badaude, baimen eta lizentzia horiek aurkeztu beharko dira.

e) Eskudiruzko ordainketen bidezko justifikazioen kasuan, 7/2012 Legearen (urriaren 20koa, Iruzurraren kontrako prebentzio ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearren tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza araudia egokitzekoa) 7. artikuluko 1. zenbakian jasotzen diren mugak gorde beharko dira.

f) Obrak egitearen ondoriozko gastuen kasuetan, eskumena duen maila teknikoko pertsonak sinatutako obren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, gauzatu direla frogatzeko.

g) Era berean, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren guztizkoaren % 20ko mugarekin, justifikatutzat jo ahal izango dira bai onuradunak berak egindako lanak eta bai onuradunaren ingurukoak izanik enpresariak ez direnek edo hala ez dihardutenek egindako lanak ere. Kasu horretan, hornitzailearen faktura ordainduen bitartez justifikatu beharko dira materialak, eta dagokion alorreko elkargokide den profesionalak sinatutako ziurtagiriaren bitartez eskulana; ziurtagiri horretan direlako lanetan inbertitutako ordu guztien kostua zehaztu beharko da. Ezarritako baremo ofizialekin bat egin beharko da orduen balioespena; horrek ez du sekula ere gaindituko merkatuan lan haiek duten balorazioa, ezta urbanizazio- eta eraikuntza-prezioen oinarria ere, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean arlo honetan eskumena duen sailak argitaratutakoa. Edonola ere, onuradunari agiri osagarria eskatu ahalko zaio.

h) Landaren eta itsasertzaren garapeneko eta europar politiketako eskumena duen Zuzendaritzako teknikariek memoria gehigarri bat aurkezteko eskatu ahal izango dute. Memoria horrek taula xehatu bat jasoko du, fakturei eta egin diren ordainketei buruzko datuekin, adibidez: fakturazioaren eta ordainketaren erreferentziak eta datak, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatu zaizkion zergak.

i) 4. oinarrian zehaztutako onuradun izateko debekurik ez izatea justifikatzeko bide hauek erabili ahal izango dira: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak edo administrazioaren ziurtagiriak, kasuaren arabera eta, dokumentu hori ematerik ez dagoenean, agintaritza administratibo baten edo notario publiko baten aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpen bat.

4.– Besteren konturako kontratazioaren kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: lan-kontratuen kopia, Gizarte Segurantzan alta emanda daudela egiaztatzeko dokumentazioa, kontratazioaren hilabeteko TC2a, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena eta laguntza eskatu aurreko 12 hilabeteetan enpresan zegoen batez besteko langile-kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa. Jarduera independenteak sortzeari dagokionez, Gizarte Segurantzaren erregimen egokiko alta. Diru-laguntzaren eskaera aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen du organo kudeatzaileak egiaztapen-dokumentu guztiak zuzenean eskuratu ditzan. Hala ere, eskatzaileak baimen hori berariaz uka dezake, baina, kasu horretan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

5.– Automatikoki, betebeharra dutenen baimenik izan gabe, egiaztatuko du organo kudeatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori laguntza-eskabidean, eta hala egiten badu, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

6.– Kudeaketa egokia eta oinarri honen 1. zenbakian aipatzen diren laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsioaren edo gastuaren azken egunetik edo azken luzapenaren azken egunetik aurrera.

7.– Landaren eta itsasertzaren garapeneko eta europar politiketako eskumena duen zuzendaritzako titularrak agiri gehiago eska ditzake, behar bezalako arrazoiak emanda, egoki iriztèn badio.

12. oinarria.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Landaren eta itsasertzaren garapeneko eta europar politiketako eskumena duen Zuzendaritzak egin beharko du ordainketa eta toki-ekintzako taldeari egokituko ez zaizkion gainerako jarduketak, edo indarreko legearen arabera dagozkionak.

